

tuen Koldo Izagirrek; *Senar-emazteak* (Erein) ipuina ekarri zuen Juan Garziak, eta *Marcovaldodo edo Urtaroak hirian* (Ibaizabal) Koldo Bigurik. Haren beste artikulatu batzuk ere argitaratu dira euskaraz.

Sorkuntza konpromisoz

Neorealismotik postmodernismorako bidean, ez zuen erositasunean geratu nahi izan, eta narritiba berrien bila aritu zen etengabe. Bulkada horri jarraituz landu zituen ondorengo lanak, ipuin fantastikoetatik hasi eta saiakera gogoetasetaraino. Ez zuen poesia lanik argitaratu, baina poesia betetako narritiba bat ere sortu zuen. *La giornata d'uno scrutatore* (Boto zenbatzaile baten eguna, 1963), *La speculazione edilizia* (Etxebizitzaren espekulazioa, 1963), *Le città invisibili* (Hiriak eta zerua, 1972), edo *Se una notte d'inverno un viaggiatore* (Baldin eta neguko gau batez bidaiari bat, 1979) dira horren emaitza.

Kazetari gisa ere jardun zuen hainbat egunkari eta aldizkarietan. Eta editore gisa ere aritu zen, Einaudi argitaletxe entzutetsuan, Cesare Pavese eta Natalia Ginzburg idazleekin batera, besteak beste. Urteak eman zituen, halaber, Parisen eta Turinen, eta, horri esker, garaiko pentsalari, filosofo eta intelektual askorekin izan zuen tratua. Inguru horrek eraginda, XX. mendeko Italiako narritiba handietako bat ez ezik, gerraosteko kultur berpizkundeko ezinbesteko figura ere bilakatu zen Calvino.

Konpromiso politiko eta kultural handia izan zuen bizi osoan (Italiako Alderdi Komunistako partaidea bilakatu zen gerraostean, nahiz eta gerora kritikoa azaldu, eta utzi egin zuen), eta bere obra du aktibismo horren erakusgarri. Gai arantzatsuak eta sakonak jorratu zituen bere lanetan: hala nola XX. mendeko gizakia- ren frustrazioa, bakardadea edo deshumanizazioa.

Gizarte industrial garaikideak zituen eronketatik abiatuta bere kontakizunetan etorkizuna irudikatzerarene iritsi zen zientzia fikzioaren bitartez. Nolanahi ere, ironiaren eta umorearen bitartez hurbildu zen horietara, errealitate eta alegoria uztartuz, ikuspegi kritikoa eta sarri autobiografikoa alboratu gabe. Hamar nobela baino gehiago, dozenatik gora ipuin, eta berrogehi bat saiakera eta bestelako artikulatu idatzi zituen Calvinok. Eta gutxiak bezala sakondu zuen literatur sorkuntzaren zirrikutuan.

Askatasunaren praktikari

Irati Majuelo

Idazle, akademiko, erreferente berezia da bell hooks. Izenetik beretik hasita, arauak itzulikatu eta ikusmolde partikularrei balioa ematen dien ahotsa da, argia eta argigarria, norbanakotik kolektiborako jauzia jardun baitezpadakotzat duena, are, norabide biko mugimendu natural eta soil modura marrazten duena. Ezinbesteko horietako bat da hooks. *Transgresioa irakasgai* lanean haren hamalau artikulatu argitaratu berri ditu Katakarak, Amaia Apalauzaren itzulpenean eta Nora Salbotxen hitzaurreaz lagunduta.

Akaso gurean ezagunagoa bada ere teoria feminista eta arrazakeriaren aurka landutako ideia eta idatzitako lanengatik, hezkuntza eta pedagogia izan ziren idazle estatubatuarren pasioetako bi. Horiei buruzko hausnar-

ketak biltzen ditu liburu honek. Edo, hobeto esanda, horien guztien arteko harreman, kontraesan, kritika eta proposamenak harilkatzen ditu artikulatuotan, in-tersekzionalitatea baita hooksen pentsamenduaren oinarri behinena, eta haren indargune nagusia. Hezkuntza ardatz, beraz, egiturazko zapalkuntzak eta desberdintasunak zein horien aurkako borrokek ditu hizketagai.



'Transgresioa irakasgai'

Idazlea: Bell Hooks. **Itzultzailea:** Amaia Apalauza. **Argitaletxea:** Katakarak.

Escola segregatua alfabetizatzen den hooks, eta horrek sakonean markatu zuen bere heziketa, baita munduari begiratzeko modua ere. Ez, preskeski, soilik ume beltzentzako eskola izateak bazikereta sentiarazi ziolako, baizik eta kontrara, ikasketa prozesua neska-mutiko haien beharretara zuzentzen zutelako euren maisutrek, ahalduzkerako esparrua eraikiz. Haurtzaroko esperientzia horri jarraikita, hezkuntza askatasunerako praktika gisa ulertzen du intelektual estatubatuarrek, eraldaketarako eta transgresiorako eremu gisa. Aurrerago kide zuriek in partekatu zituen eskola eta metodologia klasikoagoen kontrara, desberdintasunetan oinarritutako hezkuntza aldarrikatzen du hooks-ek, ikasle bakoitzaren ahotsa eta berezitasunak erdigunean jartzen dituen, eta ikasle-irakasle binomioa lausotzen duena. Hots, ikasleak informazio-hartzaile izatetik aldentzen dituen hezkuntza du goiburu.

Artikulatuotan, metodologia zehatzei buruz bainoago, egiteko eta egoteko moduei buruz mintzo da. Ildo horretan, norbanako bakoitzaren esperientziatik abia-

zten den errealitatea problematizatzea proposatzen du, edukie eta horien inguruko lanketari zein eztabaidari desberdintasunetik heltzea, alegia. Hala ere, ez da pentsalari xaloo, eta bere irakaskeraren esperientziak gidatuta, ez ditu praktika horiek langintza utopikoekin lotzen. Agerian jartzen du multikulturalismoan oinarritutako irakaskerak sortzea zein genero-, arraza-, klase-zapalkuntzak aintzat hartzen dituzten ikas-komunitateak eratzea ez dela erraza, eta, are, gatazkak eta deserosotasunak sortzen dituela. Egiaz, azpimarratzen du deserosotasun horretatik abiatzen dela jakintza kritikorako, eta, finean, askatasunaren praktikarako bidea.

Irakasten zein ikasten dabilzentzako ezinbesteko liburua da hau, beraz, hooks bera ezinbesteko den heinean. Idazketa dentsoa da zenbaitetan, errepikakorra ere bai ideia batzuetan, baina esperientzia pertsonaletatik abiatuta eta oinarri teorikoak zein norabide politikoak argi zehaztuta, itsasargi modura funtzionatzen du hezkuntza ereduari buruz hausnartzea derrigorrezkoa den garaiotan.

Bere hitzen esklaboa

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Izenburu osoa *Bi gehi bi* (eta *nire nerabezaroko beste nigma batzuk*) duen nobelatxo irakurterraz hau irakurleak limurtzeko idatzita dago. Kontakizun arina da, oro har, digresioa edota elementu osagarriak proposatzeko joera gutxi erakusten duena, eta helburu nagusiari lotutako azalpenetan zentratuta doana amaiera arte. Haatik, eraginkorra da bere helburuekiko, eta, agian, horregatik eman diote Gazte Narratibako 22. Alandar saria.

Protagonista da narritiba. Letretako jendearen antagonista sentitzen dela aitortzen digu hasieratik, nahiz eta irakurtzen ari garen testua idatzi behar izan duen, ez plazerez eta gogoz, bai-

ziki eta epaileak ezarri dion zigorra betetzeko. Zigor gisara ezarri baitio aitortza testu bat eman beharko diola, zeinetan azalduko duen, egiazki, zerk eraman duen zigor hau jasotzera.

Linealki kontaktzen digu dena. Hasteko, 15 urteko mutiko bat dela esaten digu, DBHko 2. maila egiten ari dena. Bolada onean zegoen, nota onekin eskolan, gelako estatus sozialeko gailurrean,



'Bi gehi bi'

Idazlea: Jose Antonio Frances Gonzalez. **Itzultzailea:** Aitor Arana. **Argitaletxea:** Ibaizabal.

futboleko atezain estimatua, eta arazorik gabeko familia baten partaidea. Harik eta egun batez dena amildu zitzaion arte, erreskadan jarritako domino pieza horiek bezala, elkar eragiten duten ekintza kate geldiezin.

Irakaspenezko narritiba izanik, protagonistak etengabe aitortzen digu damua, etengabe azpimarratzen du bere jokabidea zein desegokia izan zen eta, batik batik, jokabide zuzena zein izan behar zuen.

Irakurketarekin jarraitzeko gogoia, ordea, narritiba informazioa kudeatzeko erakusten duen moduan dago, zeren gertakari nagusia amaieran argitutako zaigun itxaropenarekin, tantaz tanta eskaintzen baitzaizkigu azalpen esanguratsuak. Eta irakaspenezko, hortaz, gertakariak argitzeko ahaleginean sortzen diren hausnarketan albo ondorio dira.

Azalpenetan aurrera egin ahala konturatzen gara hutsegiteko rapilatze dinamika gero eta itogarriagoan ikusten duela protagonistak bere burua, irakurlearentzako *gag* edota egoera patetikoaren segida umoretsua dena, errukia eraginez eta jokabide zuzena zein izan zitekeen hausnartzera eraman gaitzakee-

na, empatia eta justizia sena erakusten dugun neurrian.

Amailerako protagonista bere burua antzaldatuta ikusten dugu, egindako idazketa ariketaz gatik bai, baina bereziki bere ondoan suertatu zaizkion pertsona gehienak enpatikoak eta bihotz onekoak direlako, maila guztietan: epailea, irakasleak, gurasoak, senitartekoak, adiskide zaharrak eta berriak. Gehiegizkoa, sinesgarritasunari eusteko.

Eta pertsonaien karakterizazioa ez da nobelatxo honen ahul-tasun bakarra. Protagonistaren profila ezin du justifikatu erakusten duen idazketarako gaitasuna, are gutxiago narritibaaren egituraketa hain txukun egitearena.

Pentsatzen jarrita, gertakari asko protagonistaren antzaldatzeko behararen arabera ezarri direla konturatzen gara (izenburuko *bi gehi bi* adibide paradigmatikoa da), istorioan ezagutuko dugun gaizkile horren parte hartzeek garbiki erakusten duten legez.

Beraz, ongi pasatzeko testu bat edukiko dugu esku artean, baina irakurle bezatuek iruzurtzat jotzeko arriskua bere barruan daramana.